2026ko azaroaren 5eko Osoko Bilkuran onartutako eduki ekonomikorik gabeko zuzenketak, 2027ko Aurrekontu Orokorraren hasierako onarpenari lotuak.
Enmiendas sin contenido económico aprobadas en el Pleno del 5 de Noviembre de 2026 e incorporadas a la aprobación inicial del Presupuesto General de 2027

TALDEA GRUPO	ZKIA Nº	ZUZENKETA MOTA *TIPO ENMIENDA*	*Z I O A*	*M O T I V O*
ELKARREKIN DONOSTIA	4	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	**4. zuzenketa, etxebizitza hutsaren kanonari buruzkoa** Legegintzaldia bukatu baino lehen, Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legean jarri eta 149/2021 DEKRETUAn araututa dagoen kanona eta OHZren ordenantza fiskalean jarrita dagoen errekargua aplikatzea etxebizitza hutsei. Kanon horrek diru-sarrera handiagoak ekarriko lituzke etxebizitza publikoaren arloko jarduketak indartzeko, esaterako, aurreko bi zuzenketetan adierazitakoak bezalakoak.	N.º 4 **Enmienda sobre el canon a la vivienda vacía:** Aprobar antes del fin de la legislatura la normativa para aplicar el canon a la vivienda vacía establecido en la Ley de Vivienda 3/2015 y regulado por el DECRETO 149/2021, junto con el actual recargo en el IBI establecido en la ordenanza fiscal correspondiente. Este canon supondría mayores ingresos para reforzar actuaciones en materia de vivienda pública como las señaladas en las dos enmiendas anteriores.
ELKARREKIN DONOSTIA	5	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	**5. zuzenketa, berdintasunaren gaineko ordenantza bat egiteari buruzkoa** Legegintzaldia bukatu baino lehen berdintasunaren gaineko ordenantza onartzeko prozedurari ekitea. V. Berdintasun Planak, “Konpromiso politikoa” atalean, 1.1.1 lehen neurri gisa ezartzen du “Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ordenantza ezartzea”, 2026ko egikaritze-epearekin.	N.º 5 **Enmienda sobre la elaboración de una ordenanza de igualdad**: Iniciar el procedimiento para aprobar antes del fin de la legislatura una ordenanza de igualdad. El V Plan de Igualdad, establece en el apartado “Compromiso Político”, como primera medida 1.1.1 “Implantar la Ordenanza para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Ayuntamiento de Donostia”, con plazo de ejecución 2026.
ELKARREKIN DONOSTIA	8	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	**8. zuzenketa, Garapenerako lankidetzari eta hezkuntzari buruzkoa.** 2028ko aurrekontu bateratuan Garapenerako lankidetzarako eta hezkuntzarako diru saila % 0,7 izatera iristea, 2024ko otsailaren 15eko 3/2024 Legearen 16. ezartzen duena beteta.	N.º 8 **Enmienda sobre Cooperación y Educación para el Desarrollo**: Compromiso de alcanzar e**l 0,7%** del presupuesto consolidado en 2028 para Cooperación y Educación para el Desarrollo, en cumplimiento del Art. 16 de la Ley 3/2024, de 15 de febrero, de Cooperación y Solidaridad”.
ELKARREKIN DONOSTIA	81	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	**9. zuzenketa, Aieteko Bigarren Hezkuntzako Institutuari buruzkoa.** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin egin behar diren kudeaketak egitea Udal gobernuak –Aieteko eskola publikoko hezkuntza komunitatearekin eta Aieteko Institutoa Bai plataformarekin batera–, institutuak Aieten izan dezakeen kokapenik egokiena aurkitzeko legegintzaldi hau bukatu baino lehen, Osoko Bilkurak apirilean aho batez onartutako mozioak jartzen duen eran.	N.º 9 **Enmienda sobre el instituto de educación secundaria (IES) del barrio de Aiete:** El gobierno municipal realizará la gestiones necesarias con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, junto con la comunidad educativa de la escuela pública de Aiete y la plataforma Aieteko Institutoa Bai, para buscar el mejor emplazamiento para el IES en el barrio antes del final de la legislatura, en la línea de la moción ordinaria aprobada por unanimidad en el Pleno del mes de abril pasado.

TALDEA GRUPO	ZKIA Nº	ZUZENKETA MOTA *TIPO ENMIENDA*	*Z I O A*	*M O T I V O*
PP	2	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	1. zuzenketa: **2027ko lehen seihilekoan aurkeztea Bera Bera berrurbanizatzeko 3. ekinaldiari buruzko azterlanaren emaitzak.** Justifikazioa: Aurreko ekitaldian zuzenketa bat onartu zen, Bera Bera berrurbanizatzeko 3. ekinaldia azpifaseka egiteko modurik zen begiratzeko. Gu deskuidatuta ez bagaude, ordea, oraindik ez dira emaitza horiek jakinarazi, eta beharrezkoa iruditzen zaigu azterketaren ondorioak jakitea.	ESCE 1 : **Presentar, durante el primer semestre de 2027, los resultados del estudio sobre la Fase 3 de la reurbanización de Bera Bera.** Justificación: El pasado ejercicio se aprobó una enmienda para estudiar la viabilidad de ejecutar la Fase 3 de reurbanización de Bera Bera por subfases. Salvo error, no se han comunicado los resultados, por lo que consideramos necesario conocer las conclusiones del estudio.
PP	4	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	3. zuzenketa: **Morlanseko tunelaren barruan diren grafitiak garbitzea 2027ko maiatza baino lehen.** Justifikazioa: Orain dela gutxi, espaloia eratu eta ziren instalazioak hobetzeko obra batzuk egin dituzte Morlansgo tunelean. Guk uste dugu osatu egin behar dela han egindakoa, eta garbitu egin behar diela tunelaren barruan diren grafitiak. Alde horretatik, Udalak 2027ko maiatza baino lehen lan horiek egiteko konpromisoa hartzea proposatzen dugu.	ESCE 3 : **Limpiar los grafitis del interior del túnel de Morlans antes de mayo de 2027**. Justificación: Con motivo de las recientes obras realizadas en el túnel de Morlans para habilitar una acera y mejorar sus instalaciones, consideramos necesario completar la actuación con la limpieza de los grafitis existentes en su interior. Por ello, proponemos que el Ayuntamiento asuma el compromiso de ejecutar dichos trabajos antes de mayo de 2027.
PP	5	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	4. zuzenketa: **Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean hari dagokion asfaltatze-partida gauzatzeko konpromisoa hartzea.** Justifikazioa: Asfaltatze-partidetan jarritako lanek badituzte atzerapen batzuk pilatuta, eta 2026an ari dira 2024rako eta 2025erako ziren lanak egiten. Beharrezkotzat jotzen dugu aurreikusitako jarduerak aurrekontuan sartu ziren urtean bertan egingo direla bermatzea.	ESCE 4 : **Adoptar el compromiso de ejecutar, dentro de cada ejercicio presupuestario, la partida de asfaltado correspondiente al mismo año.** Justificación: La ejecución de las partidas de asfaltado acumula retrasos, hasta el punto de que durante 2026 se están ejecutando actuaciones correspondientes a 2024 y 2025. Consideramos necesario garantizar que las actuaciones previstas se ejecuten en el año para el que fueron presupuestadas.
PP	6	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	5. zuzenketa: **2027. urtean idaztea Karmengo Ama eta Ametzagaña kaleen arteko igogailuaren (KATA) alternatiben azterlana eta aurreproiektua, eta lanak egiteko kronograma ere jartzea.** Justifikazioa: Irisgarritasuna hobetu eta Karmengo Ama eta Ametzagaña kaleen arteko oinezkoen joan-etorriak samurtze aldera, proposatzen du 2027an idaztea alternatiben azterlana eta alde hartarako aurreikusitako igogailuaren aurreproiektua. Era berean, eskatzen dugu handik aurrera egin beharreko lanen kronograma izateko konpromisoa ere hartzea, proiektua idaztea eta obrak egitea ere sartuta han.	ESCE 5 : **Redactar, durante 2027, el estudio de alternativas y el anteproyecto del ascensor entre las calles Virgen del Carmen y Ametzagaña (KATA)**, y establecer un cronograma para su ejecución. Justificación: Con el objetivo de mejorar la accesibilidad y facilitar los desplazamientos peatonales entre las calles Virgen del Carmen y Ametzagaña, proponemos que durante 2027 se redacten el estudio de alternativas y el anteproyecto del ascensor previsto para este ámbito. Asimismo, solicitamos el compromiso de establecer un cronograma para las siguientes fases de la actuación, incluyendo la redacción del proyecto y su posterior ejecución.
PP	7	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	6. zuzenketa: **Gros auzoko Zabaltza Jubilatuen Elkartearentzako lokal egokia aurkitzea.** Justifikazioa: Nafarroa Beherea plazako udal lokalak ez ditu elkartearen beharrak asetzen.; gainera, alternatiba bat dauka BSiete tabernarekin egindako akordioa bide dela, Udalak 2026an emandako 50.000 euroren laguntzaren bidez finantzatua. Gure ustez, lokal bat aurkitu behar da, Zabaltzak bere jarduera etengabe egin ahal izateko eta behin betiko irtenbide bat izateko, eta, gainera, gastu errepikakor hori saihesteko modua ere izateko.	ESCE 6 : **Dar con un local adecuado para la Asociación de Jubilados Zabaltza, en el barrio de Gros.** Justificación: El local municipal de la plaza Nafarroa Beherea no satisface las necesidades de la asociación, que cuenta además con una alternativa mediante un acuerdo con el bar BSiete, financiada a través de una subvención municipal de 50.000 euros en 2026. Consideramos necesario encontrar un local que permita a Zabaltza desarrollar su actividad de forma estable y disponer de una solución definitiva que evite además mantener este gasto recurrente.
PP	8	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	7. zuzenketa: **Donostiako Kultur Etxeetan «Gregorio Ordoñez, matxinada piztu zuen hilketa» dokumentalaren proiekzioa antolatzea.** Justifikazioa: Ezinbestekoa da gure hiriaren oraintsuko historia eta terrorismo urteetan bizitako errealitatea ezagutzea. Hori dela eta, Donostiako Kultur Etxeetan "Gregorio Ordoñez, matxinada piztu zuen hilketa" dokumentala ematea proposatzen dugu, herritarrek, eta bereziki gazteek, gure historiaren testigantza jaso ahal izan dezaten.	ESCE 7 : **Organizar la proyección del documental «Gregorio Ordóñez, el asesinato que despertó la rebelión» en las Casas de Cultura de Donostia.** Justificación: Es imperativo promover el conocimiento de la historia reciente de nuestra ciudad y de la realidad vivida durante los años de terrorismo. Por ello, proponemos organizar la proyección del documental «Gregorio Ordóñez, el asesinato que despertó la rebelión» en las Casas de Cultura de Donostia, facilitando el acceso de la ciudadanía, y especialmente de los jóvenes, a este testimonio de nuestra historia.

PP	10	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	9. zuzenketa: **Udal-lokalak lagatzeko eta horien erabilera kontrolatzeko protokoloa berriz begiratzea.** Justifikazioa: Gobernu Taldeak orain den protokoloa berriz begiratzeko hartutako konpromisoa betekizun dago oraindik, behin eta berriz agindu arren udal-lokalen lagapenari buruzko interpelazioei erantzutekoan. Beharrezkotzat jotzen dugu protokolo hori eguneratzea, udal-lokalen banaketa gardena eta objektiboa izatea bermatzeko, oraindik beren jarduera garatzeko lekurik ez daukaten herritarren eta auzo-elkarteen beharrak lehenetsiz.	ESCE 9 : **Revisar el Protocolo de Cesión de Locales municipales y de control del uso de los mismos.** Justificación: El compromiso del Equipo de Gobierno de revisar el actual protocolo sigue sin materializarse, pese a haber sido reiterado en respuesta a distintas interpelaciones sobre la cesión de locales municipales. Consideramos necesario actualizar dicho protocolo para garantizar una distribución transparente y objetiva de los locales municipales, priorizando las necesidades de los ciudadanos y de las asociaciones vecinales que aún carecen de un espacio para desarrollar su actividad.
PP	11	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	10. zuzenketa: **Pagolako bizilagunak Urberoa sistemara atxikitzeko aukera aztertzea; izan ere, Bera Bera auzoan hainbat urte daramatza martxan, eta horri esker energia asko aurrezten da.** Justifikazioa: Bizilagunek energia aurrezteko modua izatea	ESCE 10 : **Analizar la posibilidad de que los vecinos de Pagola puedan adherirse al sistema Urberoa, que tantos años lleva funcionando en el barrio de Bera Bera y que supone una ahorro energético importante**. Justificación: Ahorro energético para los vecinos.
PP	14	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	13. zuzenketa: **Olaeta plazako haur-parkea estaltzeko konpromisoa hartzea, Olaeta eta Armeria plazen parte-hartze prozesuaren eta eraikuntzaren proiektuaren barruan.** Justifikazioa: Haur-parkeak estaltzea premia bat da, herritarrek auzo guztietan eskatzen dutena, neguan eguraldi txarretik babesteko eta udan aterpe klimatiko gisa erabiltzeko.	ESCE 13 : **Adoptar el compromiso de que se cubra el parque infantil de la Plaza Ferrerías, dentro del proyecto de proceso participativo y construcción de las Plazas Ferrerías y Armerías.** Justificación: La cubrición de los parques infantiles es una necesidad que los ciudadanos solicitan en todos los barrios por las inclemencias meteorológicas en los meses fríos y como refugios climáticos en los meses más cálidos.

TALDEA GRUPO	ZKIA Nº	ZUZENKETA MOTA *TIPO ENMIENDA*	*Z I O A*	*M O T I V O*
EH BILDU	4	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	**Udal-adjudikazioetan klausula sozialak eta lan-baldintzak betetzen direla egiaztatzea** Udalak eta/edo osorik Udalarenak diren sozietateek egiten dituzten obren edo zerbitzu-prestazioen adjudikazioetan aplikatzekoak diren klausula sozialak eta lan-baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal izateko, ausazko kontrol-sistema bat ezarriko da, 1.000.000 eurora iristen diren adjudikazioetan klausula horiek betetzen direla egiaztatzeko. Horretarako, hilero txostenak egingo dira horiek betetzen diren ebaluatzeko, eta, hala badagokio, dagozkion zehapenak ezarriko dira.	**Comprobación del cumplimiento de las cláusulas sociales y condiciones laborales en las adjudicaciones municipales.** Al objeto de poder verificar el cumplimiento de las clá usulas sociales y condiciones laborales de aplicació n en las adjudicaciones por obras o n de servicios que adjudique el Ayuntamiento y/o Sociedades í ntegramente municipales, se implementará un sistema de control que compruebe aleatoriamente el cumplimiento de las mismas en las adjudicaciones que alcancen un montante de 1.000.000 de euros. A tal fin se elaborará n informes que evaluen el cumplimiento de los mismos de forma mensual y, en su caso, se impondrá n las penalidades que correspondan.
EH BILDU	5	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	**Amara kalean dagoen udal-partzela baten erabilera lagatzeko formula juridikoak aztertzea, azalera-eskubidea eratuz, elkarlaneko etxebizitzak sustatzeko (cohousing sénior).** Adinekoentzako bizitokien eraikuntza bultzatzea, elkarlaneko bizikidetza-ereduen bidez (cohousing senior). Eredu horiek autonomia pertsonala, bizikidetza komunitarioa, zahartze aktiboa eta ohiko ingurunean geratzea bultzatuko dute, lurzoruaren titulartasun publikoa zainduz eta aplikatzekoa den hirigintza-, ondare- eta etxebizitza-araudia betetzen dela bermatuz. Era berean, lehendik dauden etxebizitzak mobilizatzeko eta bizitegi-alokairuaren eskaintza handitzeko, programan sartzeko baldintza gisa ezarriko da etxebizitza baten titular diren parte-hartzaileek Alokabidek kudeatzen duen etxebizitza-bitartekaritzako edo -mobilizazioko udal-programan sartzea, horiek bizitegi-alokairura bideratzeko, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan eta aplikatzekoa den araudiarekin bat etorriz.	**Estudiar las fórmulas jurídicas para la cesión del uso de una parcela municipal situada en la calle Amara, mediante la constitución de un derecho de superficie, con destino a la promoción de viviendas colaborativas (cohousing sénior).** Impulsar la construcció n de alojamientos destinados a personas mayores mediante modelos de convivencia colaborativa (cohousing sé nior) que favorezcan la autonomí a personal, la convivencia comunitaria, el envejecimiento activo y la permanencia en el entorno habitual, preservando la titularidad pú blica del suelo y garantizando el cumplimiento de la normativa urbaní stica, patrimonial y de vivienda que resulte aplicable. Asimismo, con el objetivo de movilizar viviendas existentes y ampliar la oferta de alquiler residencial, se establecerá como requisito de acceso al programa que las personas participantes que sean titulares de una vivienda la incorporen al programa municipal de intermediació n o n de vivienda gestionado por Alokabide, para su destino al alquiler residencial, en las condiciones que se establezcan reglamentariamente y de conformidad con la normativa aplicable.
EH BILDU	6	Edukin Ekonomikorik Gabeko Zuzenketa / Enmienda Sin Contenido Económico	**Bizitegi-garapenarekin koordinatutako zuzkidura publikoen programa loteslea.** Bizitegitarako hirigintza-garapen berriak onartzeko, zuzkidura publikoak egikaritzeko programa lotesle bat onartu beharko da, dagozkion antolamendu- eta egikaritze-tresnekin batera, aurreikusitako bizitegi-garapenarekin aldi baterako koordinatuta. Programa horrek faseka gauzatzeko egutegi bat ezarriko du, aurreikusitako espazio libreak, berdeguneak eta ekipamendu publikoak eraikitzeko eta eskuragarri jartzeko epeak eta konpromisoak zehaztuko dituena, etxebizitzak egiteko eta okupatzeko erritmoarekin bat etor daitezen. Horretarako, administrazio eskudunen arteko koordinazioa, beharrezko baliabide ekonomikoen aurreikuspena eta zuzkidura bakoitza gauzatzeko ardura duten erakundeen identifikazioa bermatuko dira. Helburua izango da egoiliarrek urteetan itxaron behar ez izatea, etxebizitzak okupatu ondoren, eremurako aurreikusitako ekipamendu eta zerbitzu publikoak izateko, hiri-garapen orekatua eta herritarren beharrei arreta egokia ematea ziurtatuz. Programazioan, jarraipena egiteko eta ezarritako epeak betetzeko mekanismoak jasoko dira, bai eta, juridikoki bidezkoa denean, bizitegi-faseen garapena zuzkidurak modu eraginkorrean gauzatzearekin lotu ere.	**Programa vinculante de dotaciones públicas coordinado con el desarrollo residencial.** En la aprobación de los nuevos desarrollos urbanísticos residenciales deberá aprobarse, conjuntamente con los instrumentos de ordenación y ejecución que correspondan, un programa vinculante de ejecución de las dotaciones públicas, coordinado temporalmente con el desarrollo residencial previsto. Este programa establecerá un calendario de ejecución por fases que determine los plazos y compromisos para la construcción y puesta a disposición de los espacios libres, zonas verdes y equipamientos públicos previstos, de manera que su implantación se acompase con el ritmo de ejecución y ocupación de las viviendas. A tal efecto, se garantizará la coordinación entre las administraciones competentes, la previsión de los recursos económicos necesarios y la identificación de los organismos responsables de la ejecución de cada dotación. El objetivo será evitar que la población residente tenga que esperar años, una vez ocupadas las viviendas, para disponer de los equipamientos y servicios públicos previstos para el ámbito, asegurando un desarrollo urbano equilibrado y una adecuada atención a las necesidades de la ciudadanía. La programación deberá incluir mecanismos de seguimiento y cumplimiento de los plazos establecidos, así como, cuando resulte jurídicamente procedente, la vinculación del desarrollo de las distintas fases residenciales a la ejecución efectiva de las dotaciones correspondientes.

2026ko azaroaren 5eko Osoko Bilkuran onartutako eduki ekonomikodun zuzenketak, 2027ko Aurrekontu Orokorraren hasierako onarpenari lotuak.
Enmiendas con contenido económico aprobadas en el Pleno del 5 de Noviembre de 2026 e incorporadas a la aprobación inicial del Presupuesto General de 2027

Transakzionatutakoak / Transaccionadas

TALDEA / GRUPO	**Nº** / P	ZUZENKETA MOTA / *TIPO ENMIENDA*	PROGRAMA	KONTUSAILA / *PARTIDA*	AZALPENA / *DESCRIPCION*	URTEA / *AÑO*	HASIERAKO ZENBATEKOA / *IMPORTE INICIAL*	HASIERAKO ZENBATEKOA OGASUN BATZORDEA ETA GERO / *IMPORTEINICIAL TRAS COMISION HACIENDA*	ZUZENKETA - PROPOSAMENAK *ENMIENDAS*		Z I O A / *M O T I V O*	**LOTURA** / **VINCULACIÓN**
									GAINERAPENA EDO GEHIKUNTZA / *ADICION O AUMENTO*	KENTZEA EDO BEHERAPENA / *SUPRESIÓN O DISMINUCIÓN*		
PNV-EAJ / PSE-EE / ELKARREKIN DONOSTIA	T1/ ORIGEN 15 ELKARREKIN	Reduce Gasto Corriente	EZUSTEKOAK / IMPREVISTOS	500,01	Kontingentzia fondoa / Fondo de contingencia	27	3.307.013,00	5.652.188,00		165.025,00		
PNV-EAJ / PSE-EE / ELKARREKIN DONOSTIA	T2/ ORIGEN 43 ELKARREKIN	Aumenta Gasto Corriente	HIRIGUNEETAKO HOTS-, ARGI- ETA ATMOSFERA-KUTSADURAREN AURKAKO BABESA / PROTECCIÓN CONTRA LA CONTAMINACIÓN ACÚSTICA, LUMÍNICA Y ATMOSFÉRICA	226.99.06	Argi-kutsadura / Contaminación luminosa	27	0,00	0,00	30.005,00			
PNV-EAJ / PSE-EE / ELKARREKIN DONOSTIA	T3/ ORIGEN 44 ELKARREKIN	Aumenta Gasto Corriente	IRAUNKORTASUNA / SOSTENIBILIDAD	226.09.01	"Gauzateka" buruzko proiektu pilotoa / Proyecto piloto sobre "objetotecas"	27	0,00	0,00	75.005,00			
PNV-EAJ / PSE-EE / ELKARREKIN DONOSTIA	T4/ ORIGEN 45 ELKARREKIN	Aumenta Gasto Corriente	HEZIKETARAKO PROGRAMAK / PROGRAMAS EDUCATIVOS	226.99.07	Pornografia prebenitzeko programa pilotua / Programa piloto prevención pornografía	27	15.000,00	15.000,00	25.005,00			
PNV-EAJ / PSE-EE / ELKARREKIN DONOSTIA	T5/ ORIGEN 56 ELKARREKIN	Aumenta Gasto Corriente	HERRITARREN PARTE-HARTZEA / PARTICIPACIÓN CIUDADANA	226.99.03	Asoziazionismoa sustatzea / Fomento asociacionismo	27	45.000,00	45.000,00	15.005,00			
PNV-EAJ / PSE-EE / ELKARREKIN DONOSTIA	T6/ ORIGEN 60 ELKARREKIN	Aumenta Gasto Corriente	GIZA-ESKUBIDEAK / DERECHOS HUMANOS	226.99.03	Memoria historikoa (Blanca Brisac Vázquez) / Memoria histórica (Blanca Brisac Vázquez)	27	0,00	0,00	20.005,00			

TALDEA / GRUPO	**Nº** / P	ZUZENKETA MOTA / *TIPO ENMIENDA*	PROGRAMA	KONTUSAILA / *PARTIDA*	AZALPENA / *DESCRIPCION*	URTEA / *AÑO*	HASIERAKO ZENBATEKOA / *IMPORTE INICIAL*	HASIERAKO ZENBATEKOA OGASUN BATZORDEA ETA GERO / *IMPORTEINICIAL TRAS COMISION HACIENDA*	ZUZENKETA - PROPOSAMENAK *ENMIENDAS*		Z I O A / *M O T I V O*	**LOTURA** / **VINCULACIÓN**
									GAINERAPENA EDO GEHIKUNTZA / *ADICION O AUMENTO*	KENTZEA EDO BEHERAPENA / *SUPRESIÓN O DISMINUCIÓN*		
PNV-EAJ / PSE-EE / PP	T1/ ORIGEN R1 PP	Reduce Gasto Corriente	EZUSTEKOAK / IMPREVISTOS	500,01	Kontingentzia fondoa / Fondo de contingencia	27	3.307.013,00	5.652.188,00		210.020,00		
PNV-EAJ / PSE-EE / PP	T2/ ORIGEN 193 PP	Aumenta Gasto Corriente	KIROLAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA / DEPORTES: DIRECCIÓN Y ADMINISTRACIÓN	431,01	Kiroletako Udal Patronatuari ekarpena (gastu arrunta) / Aportación al Patronato Municipal de Deportes (gasto corriente)	27	11.930.450,00	12.384.950,00	10.005,00		Saguesko pilotalekua: Pilotalekuaren garbiketa eta mantenimendua / Frontón de Sagües: Limpieza y mantenimiento del frontón	(Zenbateko hori Donostia Kirolaren "Beste instalazio batzuk" programaren 211.01 zenbakian handitzea) (Incrementar este importe en la 211.01 del programa "Otras instalaciones" de Donostia Kirola)
PNV-EAJ / PSE-EE / PP	T3/ ORIGEN 203 PP	Aumenta Gasto Capital	PROIEKTU ETA OBRAK / PROYECTOS Y OBRAS	601,09	Morlans-Lugaritz tunelerako oinezkoentzako sarbidea / Acceso peatonal túnel Morlans-Lugaritz	27	0,00		75.005,00			
PNV-EAJ / PSE-EE / PP	T4/ ORIGEN 208 PP	Aumenta Gasto Capital	KIROL INSTALAKUNTZAK / INSTALACIONES DEPORTIVAS	731,01	Udalaren Kirol Patronatuari diru-ekarpena (kapital-gastua) / Aportación al Patronato de Deportes (gasto de capital)	27	400.000,00		75.005,00		Bidebietako Juan Carlos Guerra kaleko kirol kantxa berritzea / Renovación cancha deportiva de la calle Juan Carlos Guerra en Bidebieta	(Zenbateko hori Donostia Kirolaren "Zuzendaritza eta administrazioa" programako 622.01 zenbakira igotzea) (Incrementar este importe en la 622.01 del programa "Dirección y administración" de Donostia Kirola)
PNV-EAJ / PSE-EE / PP	T5/ ORIGEN 209 PP	Aumenta Gasto Capital	KIROL INSTALAKUNTZAK / INSTALACIONES DEPORTIVAS	731,01	Udalaren Kirol Patronatuari diru-ekarpena (kapital-gastua) / Aportación al Patronato de Deportes (gasto de capital)	27	400.000,00		50.005,00		Pilotalekua, kantxa eta Manteoko parkea argiztatzea, kirol-ekipamenduaren erabilera intentsiboagoa eta luzeagoa izan dadin./ Iluminación frontón, cancha y parque de Manteo para favorecer un uso más intensivo y prolongado del equipamiento deportivo.	(Zenbateko hori Donostia Kirolaren "Zuzendaritza eta administrazioa" programako 622.01 zenbakira igotzea) (Incrementar este importe en la 622.01 del programa "Dirección y administración" de Donostia Kirola)